



elika

Fundación Vasca para la
Seguridad Agroalimentaria

Nekazaritzako Elikagaien
Segurtasunerako
Euskal Fundazioa



RASFF TXOSTENA

ELIKAGAIK

ALERTAK - JAKINARAZPENAK

Jakinarazpenen kategorizazioa

Jakinarazpenen jatorria


Kutsadura iturrien sailkapena

Kutsatzaile nagusiak eta inplikaturako elikagaiak

2021eko BIGARREN LAUHILEKOA


JAKINARAPENEN KATEGORIZAZIOA

2021eko bigarren lauhilekoan elikagaiei buruzko 1422 jakinarazpen izan dira. Horietatik 512 alertak izan dira (%36), 464 informazio-jakinazpenak (%32,5) eta 446 mugan egin diren ukapenak (%31,5).



JAKINARAZPENEN JATORRIA

Kutsatutako produktuen jatorrizko herrialdeak hurrengoak izan dira:




Asiari dagokionez, kutsatzaileen % **40,5a Turkiakoak** eta % **24 Indiakoak**. Europari dagokionez, jakinarazpen gehien sortu dituzten herrialdea **Polonia** izan da, % **20**arekin, bigarren **Holanda** izan delarik % **12**arekin. **Afrikaren** kasuan, **Marokok**, jakinarazpenen %**31** izan ditu. Azkenik, **Amerikaren** kasuan **Brasil %33a** eta **EEBBI %19arekin** dira jakinarazpen gehien sortu dituztenak.

KUTSADURA ITURRIEN SAILKAPENA

2021eko 2. lauhilekoan zehar, Europako Informazio Azkarraren Sistemak (RASFF) **elikagaien 1422 alerta eta jakinarazpen** berri eman du. Jakinarazpen guztietatik, kutsadura iturrirei dagozkien zenbatekoak honako hauek dira:

Kutsadura iturria	%
Hondakinak	% 28,5
Kutsadura biologikoa	% 23
Iruzurrak	% 15
Mikotoxinak/biotoxinak	% 11
Kutsadura kimikoa	% 10
Metal astunak	% 4,5
Kutsadura fisikoa	% 4
Produktuaren egoera higieniko txarra	% 3,5
Bestelakoak	% 0,5



KUTSATZAILE NAGUSIAK ETA INPLIKATUTAKO ELIKAGAIAK

Mikotoxinek eragindako kutsaduren artean, kasu gehienetan, % 70,5an, kutsadura **AFLATOXINEK** eragindakoa da eta, horrelakoetan **KAKAHUETEA** kutsaduren % 43a eragin du. Kasu gehienetan, % 21an, kakahuetea **EEBB**etatik zetorren.

Kutsadura biologikoei dagokienez, **SALMONELEK** kutsaduren %67,5a eragin ditu. *Salmonella sp* da talde honetako protagonista nagusia kasuen % 71ean. **OILASKOA** izan da produktu protagonista %38eko kasuetan, %71,5eko kasuetan **POLONIA** jatorria zelarik. Beste salmonelei dagokienez, %25,5a *Salmonella enteritidis* dagokio. **OILASKOAK** eragin ditu kasuen % 84a eta %91,5eko kasuetan **POLONIA** izan da jatorria eta %3,5a *Salmonella typhimuriumi*, kasu honetan **INDIOILARRA** protagonista direlarik (%57a) eta **POLONIA** %100.

Kutsadura biologikoarekin jarraituz, *Listeria monocytogenes* bakteriak jakinarazpenen %16,5a eragin ditu, **GAZTA mota desberdinak** %41,5ean inplikatura egonda, **FRANTZIA** jatorrikoa %36,5an..

Hondakinei dagokionez, **PESTIZIDAK** %97a dira eta **MEDIKAMENTUAK** %3a. Pestiziden kasuan, clorpirifos, debekatuta dagoen plagizida, %25en kasuetan erabili izan da.

Jasotako iruzurru guztien artean, **ETIKETAN ADIERAZI GABEKO ALERGENOEK** 32,5%ak, suposatu dute. Bestalde, %47,5a **ELIKAGAI-OSAGARRI**etan debekatutako sustantziak erabiltzeagatik.

